

# XIX. XENPELAR SARIA

Julian Albistur Aranburu  
(Xenpelar Bertso Eskola)

**A**zken urteotan bi urtez behin antolatu ohi den XENPELAR SARIA 2006ko abenduan jokatu zen.

Ereintza Elkarteak, Xenpelar Bertso Eskolaren laguntzarekin antolaturiko lehiaketa honetan Euskal Herriko herrialde ezberdinetako 12 bertsolarik hartu zuten parte iazko ekitaldian, bi seikote osatuz.

Hilaren 1ean eta 5ean kanporaketak jokatu ziren Xenpelar Kultur Etxean.

Lehenengoan Uxue Alberdi, Manex Agirre, Jon Elizetxe, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Unai Muñoa aritu ziren. Hauetatik, Uxue Alberdi, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi, hiru onenak, finalerako sailkatu ziren.

Bigarren kanporaketan Haritz Casabal, Arkaitz Oiartzabal, Oihana Bartra, Eneritz Zabaleta, Aitzol Barandiaran eta Ander Lizarralde aritu ziren. Talde honetako hiru onenak Arkaitz Oiartzabal, Oihana Bartra eta Ander Lizarralde izan ziren eta finalerako txartela lortu zuten.

Finala, ohikoa denez, abenduaren 8an jokatu zen 18:00etan hasita Erretereria Hiria Kulturgunean, 200 entzuleren aurrean. Aurrez sailkatutako 6 bertsolariak kantatu zuten.

Finala bi fasetan egin zen; lehenengoan 12na bertso kantatu ondoren, 2 onenak pasa

ziren bigarren fasera: Uxue Alberdi eta Arkaitz Oiartzabal. Bi hauek beste 6na bertso kantatu zituzten buruz buruko saioan.

Uxue Alberdi, saio osoan nabarmendu zen eta beste 5 bertsolariek ere, oro har, maila oneko saioa burutu ondoren, hau izan zen azken emaitza:

1.	Uxue Alberdi	754 puntu
2.	Arkaitz Oiartzabal	724,5 puntu
3.	Unai Muñoa	480,5 puntu
4.	Ander Lizarralde	478 puntu
5.	Oihana Bartra	477,5 puntu
6.	Beñat Gaztelumendi	476,5 puntu

Lau mutil eta bi neska iritsi ziren finalera eta, berriz ere, neska nagusi. Azken sei txapeladunetik bost neskak dira, 2004koa salbuespena izanik, Iñaki Apalategik irabazitakoa hain zuzen. Aipatu beharra dago Uxuek, saio ederra egin ondoren, merezimendu osoz irabazi zuela. Erraz eta ongi egiten du bertsoan elgoibartar gazteak; erakustaldia eman zuen. Bestalde, Uxue arlo ezberdinetan sari asko irabazitako neska da; altxor bat.

Eskualdeko bertsolariek ere erakutsi zuten euren maila: Arkaitz Oiartzabal bigarren sailkatu zen eta Ander Lizarraldek bertso onenaren saria irabazi zuen. Alaia Martin eta Haritz Casabal ez ziren finalera iritsi.



Lehen kanporaketa (2006/12/1)



Uxue Alberdi txapelarekin

## IÑAKI MURUARI OMENALDIA

Bertso saioa amaitu eta sariak banatu aurretik Iñaki Muruari omenaldi xume bat egin zitzaion, bera izan baitzen 1979an II. Xenpelar Saria irabazi zuena. *Euskal makila* jaso zuen Ereintza Elkarteko Lehendakaria den Naroa Perezek emanada.

1979-12-8an jokaturako edizio hartan Iñakiren lehiakideak Millan Telleria, Jesus Iribar, "Olalde", Juan Inazio Begiristain eta Mikel Mendizabal izan ziren, Xenpelar hil zela 110 urte betetzen zirenean.

Iñakik oraindik bertsoan ongi egiten duela erakutsi zuen.

Murua Gabiriako Agerre-Etxemendi baserrian jaio zen eta gaur egun Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko hehendakaria da; lanbidez, irakaslea. Txapelketa Nagusian 2 aldiz finalista izana: 1986an (5.) eta 1989an (8.).



Iñaki Murua, omendua, kantari